

- Ama, ama, begira zelako fruta arraroak. - Esan zion Nahiak bere amari, korrika batean hurbilduta.

Miren barreka hasi zen eta galdetu zion Mareni:

- Zer da hori?
- Gameluaren gorotza?
- Bai ama eta oso goxoa. - Erantzun zion Marenek.
- Hori ez da gamelu gorotza!
- Bai!!!
- Banekien baina jakingura izan dut zer erantzungo zidan Nahiak. Eta oso ondo eta azkar erantzun dit.
- Oh!! Ze goxoa gamelu gorotz hau. - Esan zuen Mirenek barrezka eta barrezka lotu ezinik. Gameluak ere zarata arraro batzuk egiten hasi ziren. Barrezka egongo al ziren gameluak ere?

Orduan Mirenek datilak palmondoaren fruitak direla azaldu zien bere alabei. Mirenek datil bat (Diarari) eskatu ondoren, jaten hasi zen.

- Goxoa al da ama? - Galdetu zion Marenek aurpegi motza jarrita.
- Bai, oso goxoa. - Erantzun zion amak.
- Probatu bat, baina kontuz hortzarekin hezurtxo bat dauka barrualdean eta.

Marenek hartu zuen datila eta zati txiki bat probatu zuen.

- Oh! Oso goxo dago! - Esan zuen Marenek.
- Orduan Nahiak ere probatu nahi izan zuen eta asko gustatu zitzaion. Egun hartan oso pozik zeuden, gameluan ibili ziren, fruta berri bat jan zuten eta barre egin zuten hori dela eta.

Hurrengo egunean kobazulo batzuk ikustera joan ziren, eta noski, Diara ere eurekin. Diarak azaldu zien aintzina Saharako jendea kobazulo hartan bizi zela, eta denak aho zabalik geratu ziren.

Handik egun pare batera, gauza asko ikusi eta ikasi ostean, Maren, Nahia eta beraien gurasoak Euskal Herrira bueltatu behar ziren, baina bidaia honetan Marenek ez zuen Euskal Herrira bueltatu nahi. Negar asko egin ostean eta muxu pila bat eman ondoren, agurtu ziren denak baina Maren eta Diara bata besteari lotuta zeuden, askatu ezinik. Asko kostatu zitzaien gurasoei Maren lasaitzea.